

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2017ko uztailaren 14an aurkeztuko du

Georg Baselitz. Heroiak

Georg Baselitz. Heroiak

- Data: 2017ko uztailak 14tik urriaren 22ra arte
- Komisarioak: Max Hollein (Fine Arts Museum of San Francisco), Eva Mongi-Vollmer (Städel Museum Frankfurt) eta Petra Joos (Guggenheim Bilbao Museoa)
- Georg Baselitz gure garaiko eragin handieneko pintore eta eskultoreetako bat da. Sormen-leherketa izugarritzkoan, 1965 eta 1966. urteetan *Heroiak* zikloko pertsonaia dramatiko eta paradoxikoak sortu zituen. *Heroiak* eta *Tipo Berriak* lan-multzo indartsua 1960ko hamarkadako arte alemanaren adierazle gorentzat jotzen da egun.
- Heroi horien barren hauskor eta paradoxikoak forman aurkitzen du kontrapuntua: aurrealdeko irudikapena eta irudiak erdigunean duen konposizioa, argi definitzen diren lerroez baliatuta, guztiz bestelakoa da kolore-paletaren indar basatiarekin eta estilo piktorkoaren suhertasunarekin alderatzen badugu.
- Izatez, probokazioa da artistak, 27 urte besterik ez zituela, «heroiak» edo «tipoak» landu izana; izan ere, heroismoa (maskulinoa) eta bere behinolako adierazleak gogorki ari ziren zalantzan jartzen gerraondoan.

Guggenheim Bilbao Museoa *Georg Baselitz. Heroiak* erakusketa aurkezten du, "heroi" zaurgarriak eta garaiak erretratatzeko dituen pintura-multzoari buruzko monografikoa. gure garaiko itzal handiko artisten artean dagoen Georg Baselitzek sortu zituen, 1965 eta 1966. urteetan. Frankfurtoko Städel Museum-ek antolatu du erakusketa hau, Guggenheim Bilbao Museoarekin, Stockholmeko Moderna Museet-ekin eta Erromako Palazzo delle Esposizioni-rekin lankidetzan; bertan, 60 margolan, marrazki eta zirriborro biltzen dira lehen aldiz. Horietan, irudi ikaragarriak, arteta eta desafioan, artistaren asertibotasunaren eta identitatearen baieztapen adorea dira; Baselitzen ezaugarri horiek bere garaiko arte- eta pentsamendu-joera guztien kontra zihoazen. Azkenik, iraganaren eta orainaldiaren arteko jarraitutasun ideal bat marratuz, Bilboko nahiz Erromako erakusketak *Remix* zikloko margoen aukeraketa batekin bukatzen dira. 2005ean ekin zion Georg Baselitzek ziklo horri, *Heroiak* eta *Tipo Berriak* bildumak barne hartuko zituenari, 2007an eta 2008an hurrenez hurren.

Artistak onartu duenez, "sekula ezin izan dut Alemania ekidin, ezta alemaniarra izatea ere". 1965ean, Georg Baselitzek, gerraosteko Alemania era askotako suntsipenez jositako egoera gisa ulertzen zuen, non ideologiak, sistema politikoak eta estilo artistikoak zalantzan jartzen ziren. Ordena gabezia hori bateragarria zen oso artistaren izaerarekin, eta bere garaiaaren aspektu ekibokoak agerian jartzeko hautua egin zuen, ikuspuntu eszeptiko batetik abiatuta. Bere *Heroiak*, gerra-uniforme zarpailtan jantziak, irudi kontraesankorrak dira, porrotak bezain etsipenak markatuak. Izatez, probokazioa da artistak, 27 urte besterik ez zituela, «heroiak» edo «tipoak» gaiak landu izana; izan ere, heroismoa (maskulinoa) eta bere behinolako adierazleak gogorki ari ziren zalantzan jartzen gerraostean.

Heroi horien barren hauskor eta paradoxikoak forman aurkitzen du kontrapuntua: aurrealdeko irudikapena eta irudiak erdigunean duen konposizioa, argi definitzen diren lerroez baliatuta, guztiz bestelakoa da kolore-paletaren indar basatiarekin eta estilo piktorikoaren suhertasunarekin alderatzen badugu. Hala, Baselitzek Alemaniako Errepublikaren mirari ekonomikoaren kontakizun epikoari deserosoa suertatzen zitzaion errealitatea irudikatzen zuen figurazioa baliatuz, berez forma zaharkitua omen zena. Hala eta guztiz ere, gizarte-gai orokorretatik haratago doan ardura jorratzen du Baselitzek, eta berak gizartearen baitan okupatzen duen posizioaren inguruko hausnarketa egiteko ere baliatzen du.

Soldaduak, artzainak, matxinoak, gerrillariak eta margolari modernoak; horiek dira Georg Baselitzek bakardade absolutuan margotutako *Heroiak* eta *Tipo Berriak*, sormenezko leherketa emankorreetan. Pintzelkada indartsuz margotutako lanek kolorea, lerroa eta irudia elkarren lehian erakusten dituzte, bai indarrari eta bai intentsitateari dagokionean, guztiz berria suertatzen zen heroimota bat erretratatzeko.

Gerra eta gerraosteko propaganda eta erretorikari lotutako irudia alde batera utzita, Baselitzek *Heroiak* hauskortasunaren, ezegonkortasunaren eta hutsaltasunaren adierazle dira. Erraldoi horiek ilun, hauskor eta zauriturik ageri dira, uniforme gastatuak soinean, obra-hondakinez osaturiko hondo baten kontra. Baina, guztiarekin ere, etsipen sentimendu hori objektu baten presentziak arintzen du: artistaren paleta izan daiteke, edo eskorga bat edo natura-zarpa bat hartzeko keinuak erakusten dira, hazia etorkizuneko uztaren batetik babestu nahiko balu bezala.

Zoritxarreko porrota eta esperantza-zeinua, biak biltzen dituzte irudi horiek: nazismoa baino lehen Alemanian jaiotako gazte batek adierazitako anibalentzia baliotsua dira, herrialdea ezin adiskidetzeko bi zatitan nola banatzen zen ikusi eta gizartearen osatzeko balizko eredu bat aurkitzen ez zuen artistarena, hain zuzen.

Heroiak eta *Tipo Berriak* zikloak ia osotasunean ikusgai ipintzeaz gain, erakusketak gai berari buruzko marrazkien eta egurrezko grabatuen aukeraketa bat hartzen du barne. Horiekin batera, Baselitzek 1966an buruturiko lan «hautsien» lehen adibideak ageri dira; horietan artistak, alderantzikatutako irudien aurrekoa den etapa batean, berrantolaketa-ideiarekin esperimentatu zuen.

Erakusketako komisario den Max Holleinen hitzetan, «*Heroiak* mugari eta ardatz sutsu dira aldi berean Georg Baselitzek obran. Barne-behar sakon bat dute sorburu, esanguraz beteriko premiazko gaiekin berariaz aurrez aurre, eta, artistak, artista den heinean, duen existentziari buruzko hausnarketa inteporala garatzen dute. Modu karrankari eta sentiberan irudikatutako isolamenduari, deserrotzeari eta desorientazioari adierazpidea emanaz, obrak artistak mundu hautsi batean bizi duen esperientzia-egoera ezegonkorra jasotzen du, eta bere egoeraren irudi paradigmaticoa bat ezartzen du».

Baselitzek *Heroiak* eta *Tipo Berriak* zikloek behin eta berriz errepikatzen diren objektuekin hornituta daude: soldadu-zakuak, paletak eta pintzelak, edo tortura-instrumentuak. Lan guztien 162 x 130 zentimetroko formatu errepikakorra gorabehera, lan bakoitzak bere adierazpen paregabe baten bitartez sorrarazten digu zirrara, hautaturiko pintura-metodoaren eta erabilitako koloreen arabera. Baselitzek bere motiboarekin izandako mailaz

mailako hausturaren lekuko da erakusten diren lanen sekuentzia kronologiko zabala. Distantzia oso gutxi dago bilduma honen eta ondoren etorritako buruz behera dauden irudien artean.

Baselitzek beka bati esker Florentziako Villa Romana artista-egoitzan pasatako garaian hasi zituen *Heroiak* eta *Tipo Berriak* serieak. Mendebaldeko Berlinera itzuli ondoren ere, gai horiek lantzen jarraitu zuen. Bukatzear zegoen Baselitzen eskandaluen historia, 1963an Galerie Werner & Katz galeriako erakusketarekin batera abiatu zenetik mila bider eztabaidatu izan zena. *Heroiak* bildumako pinturak inflexio-puntu berezi baten adierazle dira artistaren lehen garaietan, eta historia-dokumentutzat har daitezke. Lan horiek ez ziren bere garaiko arte-joeretara lerrotatu, izan ZERO taldeko etorkizuneko ikuskerarekin, izan abstrakzio hurreratze frantses edo iparramerikarrekin, edo izan gerraosteko Informel mugimendu alemanarekin. Gerra amaitu eta handik hogeitaurtera ere, Baselitz ez zen hasiera berri baten azaleko sentimendu horrekin kontentatzen. Eta, nahiz eta *Heroiak* eta *Tipo Berriak* bildumek errepikatzen diren motiboak erakutsi, izugarriak dira, puskatuak daude, eta boteretsuak dira beren formulazio piktorikoan. Posizionamendu garrantzitsu baten ordezkari dira 1945. urtearen osteko arte alemanaren baitan.

Remix

Iraganaren eta orainaldiaren arteko jarraitutasun-lerro bat marrazten du erakusketak, eta *Remix* zikloko obren hautaketa bat ere hartzen du bere baitan. 2005ean hasi zen Baselitz ziklo horretan lanean, eta hasierako lan horrek *Heroiak* eta *Tipo berriak* bildumak iragarri zituen, 2007an eta 2008an agertuko zirenak hurrenez hurren.

Remix bildumako pinturetan, Baselitzek berriz ekiten die bere ibilbideko aspekturik probokatzailenei, *Gaualdi handia zapuztu zen* (*Die große Nacht im Eimer*), 1962–63 eta *Lagun handiak* (*Die großen Freunde*), 1965, lanetan kasu, eta bertsio edo interpretazio berriak sortzen ditu, esperientziaren abantaila gehigarria baliatuta. *Remix* zikloko lanak zabalagoak dira, eta azkartasunez margotu zituen artistak, ñabardura distiratsu eta gardenen zerrenda handiak erabilita, eta lerro leherkor eta makurrekin; bere aurretiko lan astunagoen transubstantziazio erradikalak dira —erdi-karikatura, erdi-mamu—. Lan horiek gauzatzeko baliatutako berezkotasunak iraganeko, orainaldiko eta etorkizuneko gauzen oroitzapen-kolpeei bide ematen die. Agerikoa da artelanak argitu eta eguneratzeko bulkada, baina lan horren kalitate aztoragarri eta iragankorrak badu baita zerikusirik artista heldu batek denborari, presentziari, porrotari eta aukerari buruz dauzkan meditazioekin. Artistak azaldu duenez, “erakarri egin ninduen ‘remix’ hitzak, gazteen kulturari dagokiolako”.

Biografia

Georg Baselitz Deutschbaselitz-en jaio zen (mendebaleko Saxonia), 1938ko urtarrilaren 23an. Berlin-Weissensee-ko (Ekialdeko Alemania) Arte Ederren Eskolan hasi zituen ikasketak, eta kaleratu egin zuten hasi eta bi seihilekotara, bere «heldutasun soziopolitiko eza» zela-eta. Berlin-Charlottenburg auzoan ekin zion berriro trebakuntzari 1957an (Mendebaldeko Alemania). Atzerrira egindako lehen bidaietan Amsterdamera eta Parisera jo zuen. 1961ean bere lehen erakusketa ospatu zuen Eugen Schönebeck-ekin batera, etxe huts batean; orduan argitaratu zen “Pandemonium Manifesto” gisa ezagutuko zen lehen aldarrikapen artistikoa. Erakusketa hura, eta ondorengoak, polemikoak suertatu ziren. 1966an Berlinetik alde egin zuen Baselitzek, Renania-Hesse-ra tokiz aldatzeko, Worms-etik gertu. 1969an egin zuen buruz behera ageri diren irudien lehen margolana; ordutik, bere ibilbide osoan zehar mantendu zaio fidel hasierako ideia hari. Artistaren itzala handitzen zihoan

heinean, bere obra gero eta gehiago hedatu zen atzerrian; 1980an, Anselm Kiefer-ekin batera, Veneziako Bienaleko 39. edizioan Alemaniako Errepublika Federala ordezkatzeko proposamena jaso zuen. Abagune haren ondoren, kritikaren harrera aparta jaso zuten erakusketak etorri ziren hainbat herrialdetan, Britainia Handian eta Amerikako Estatu Batuetan kasu. 1983 eta 1988. urteen artean, eta, gero, 1992. urtetik aurrera, Baselitzek Berlinen jarraitu zuen bere irakaskuntza-jarduera, 1978an Karlsruhekeo hirian hasi zuena. Egun, hainbat erakusketa, atzera begirako, sari eta ohorezko katedrak bere obraren garrantzia apartekoa saritzen jarraitzen dute.

Azaleko irudia:

Georg Baselitz

Margolari modernoa (Der moderne Maler), 1965

Olio-pintura mihise gainean

162 x 130 cm

Bilduma pribatua

© Georg Baselitz, 2017

Argazkia: Frank Oleski, Kolonia

Argibideetarako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel.: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.eus

www.guggenheim-bilbao.eus

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.eus (prentsa-eremua).

Prentsa irudiak:
Georg Baselitz. Heroiak
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza. Oso garrantzitsua da irudien koloreen profila ez aldatzea. Mesedez, erabil ezazu beti jatorrizko profilen kolorea, eraldatu gabe.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoko bidez, media@guggenheim-bilbao.eus

Georg Baselitz bere Berlingo estudioan, 1966
Argazkia: © Elke Baselitz 2017



Georg Baselitz, 2014
Argazkia: © Peter Knaup 2017



Georg Baselitz

Blokeatutako margolaria (Versperrter Maler), 1965

Olio-pintura mihise gainean

162 x 130 cm

MKM Museum Küppersmühle für Moderne Kunst, Duisburg, Ströher Bilduma

© Georg Baselitz, 2017

Argazkia: Archiv Sammlung Ströher



Georg Baselitz

Artzaina (Der Hirte), 1965

Olio-pintura mihise gainean

162 x 130 cm

Museum moderner Kunst Stiftung Ludwig Vienna, Österreichische Ludwig-Stiftung-en mailegua, 1993etik

© Georg Baselitz, 2017

Argazkia: Frank Oleski, Kolonia



Georg Baselitz

Matxinoa (Rebell), 1965


Olio-pintura mihise gainean

162 x 130 cm

Tate, 1982an eskuratua, Londres

© Georg Baselitz, 2017

Argazkia: Friedrich Rosenstiel, Kolonia

**Georg Baselitz**

Margolari modernoa (Der moderne Maler), 1965


Olio-pintura mihise gainean

162 x 130 cm

Bilduma pribatua

© Georg Baselitz, 2017

Argazkia: Frank Oleski, Kolonia

**Georg Baselitz**

Tipo berri bat (Ein neuer Typ), 1965

Gouachea, ur-kolorea eta argizarizko margoak paper gainean

487 x 317 cm

Bilduma pribatua

© Georg Baselitz, 2017

Argazkia: Jochen Littkemann, Berlin

**Georg Baselitz**

Bonjour Monsieur Courbet, 1965


Olio-pintura mihise gainean

162 x 130 cm

Collection Thaddaeus Ropac, Paris – Salzburgo

© Georg Baselitz, 2017

Argazkia: Frank Oleski, Kolonia

**Georg Baselitz**

Zuhaitza (Der Baum), 1966

Olio-pintura mihise gainean

162 x 130 cm

Bilduma pribatua

© Georg Baselitz, 2017

Argazkia: Jochen Littkemann, Berlin

**Georg Baselitz**

Tipo berria (Der neue Typ), 1966

Olio-pintura mihise gainean

162 x 130 cm

Louisiana Museum of Modern Art, Humlebæk, Danimarka, Dohaintza: Franz

Dahlem



© Georg Baselitz, 2017

Argazkia: Kim Hansen, Louisiana Museum of Modern Art, Humlebæk

Georg Baselitz

53 Arranoa – 65 Heroia (Remix) [Adler 53 - Held 65 (Remix)], 2007

Olio-pintura mihise gainea

300 x 250 cm

Bilduma pribatua

© Georg Baselitz, 2017

Argazkia: Jochen Littkemann, Berlin



Georg Baselitz

Kizkurduna (Lockiger), 1966

Olio-pintura mihise gainea

162 x 114 cm

Bilduma pribatua

© Georg Baselitz 2017

Argazkia: Jochen Littkemann, Berlin

